

V - BESTELAKOAK

KIROLARABA FUNDAZIOA

Goi mailako kirolarientzako laguntzen 2022rako deialdia

1. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea da Kirolaraba Fundazioak bere kirol jardueraren lehiaketa maila go-
renetan parte hartzen duten kategoria absolutuetako Arabako kirolari federatuei laguntzak
ematea arautzea.

2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitartean izandako entrenamenduek eragin-
dako gastuen zati bat finantzatzeko dira laguntza hauek, eta eskuratu nahi den kirol arrakasta
lortzen laguntzea dute helburu.

Hori guztia, Kultura eta Kirol Sailaren norgehiagokako dirulaguntzen araubidea arautzen
duten oinarri orokor arauemailetan (Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretua, aza-
roaren 12koa, 2019ko azaroaren 20ko 134. ALHAOn argitaratua, martxoaren 2ko 7/2021 Foru
Dekretuaren bidez aldatua), Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016
Foru Dekretuan eta honako deialdi honetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua. Laguntzak emateko prozedura

Laguntza horiek norgehiagoka bidez emango dira.

3. artikulua. Onuradunak eta kanpo utzitakoak

1. Araban edo Trebiñuko enklabeen bizi eta lizentzia federatua duten kirolariek honako bete-
kizun hauek bete behar dituzte mota honetako laguntzak jaso ahal izateko:

a) Gutxienez 2019ko urtarrilaren 1az geroztik Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean
edo Trebiñuko enklabeen jarraian erroldatuta egotea.

Eskatzaileek, aldi baterako eta ezinbestean, errolda Arabako Lurralde Historikokoak ez diren
herri batean edo Trebiñuko enklabeen lortu behar badute, baldintza hori bete gabe ezin izango
dutelako kirola hobetu, betekizun horretatik salbuetsi ahal izango dira, aldez aurretik justifikazio
idazkia aurkeztuta.

b) Dagokion kirol modalitateko Arabako federazioak emandako federazio lizentzia indarrean
izatea (2021/2022 denboraldikoa edo 2022. urtekoa).

Eskatzaileek, aldi baterako eta ezinbestean, lizentzia Arabako Lurralde Historikokoa ez den
kirol federazioren batean lortu behar badute, baldintza hori bete gabe ezin izango dutelako
kirola hobetu, betekizun horretatik salbuetsi ahal izango dira, aldez aurretik justifikazio
idazkia aurkeztuta.

c) Nor bere kirol modalitatean, gutxienez estatuko, Europako edo mundu mailako txapelkete-
tan edo Olinpiar Jokoetan lehiatu izana. Deialdi honetako 11. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako
baremazioaren arabera parte hartzeak puntuak ematen dituen lehiaketetan, munduko edo Euro-
pako txapelketetan, beharrezkoa izango da lehiaketan parte hartzeko aldez aurreko sailkapena
izatea: txapelketa, estatuko selekzioaren edo Basque Country-ren ordezkari gisa parte hartzea.

Modalitatea edo diziplinaren lehiaketa hainbat mailatan antolatuta badago, "Kategoria
gorena" mailarik edo talderik altuena dela ulertuko da.

Laguntza gai diren kirol proba horiek lehiaketa mailarik gorenei dagozkiela iritziko da. Horren ondorioz, baztertuta egongo lirateke honelako lehiaketak: 2 mailako, 3 mailako edo B mailako txapelketak, oinarriko mailako txapelketak, 2. mailako txapelketak, autonomia erkidegoetako selekzioak eta antzekoak. Ez da kirol-arrakastatzat hartuko emaitza talde bateko kideen banakako jarduketan batura denean. Gimnasia erritmikoaren diziplinan lehen kategorian seniorrean edo senior ohorean lortutako kirol-arrakastak bakarrik baloratuko dira. Gimnasiako modalitateko gainerako diziplinetan, senior kategorian lortutako kirol-arrakastak baino ez dira baloratuko.

“Zazpi Herrialde” izeneko txapelketan parte hartzea Espainiako txapelketan parte hartzearen parekoa izango da.

Aurkeztutako modalitatea/espezialitatea lehendik dauden eta ofizialki onartuta dauden federazioetako batean ere sartzen ez den kasuetan, eskaerak balioesteko ardura duen kide anitzeko organoak, egokia iruditzen bazaio, federazioen arteko balioekide bat hartu ahal izango du erreferentziatzen.

Emandako datuak kategorian absolutuko eta maila goreneko kirolariarenak baino ez dira izango. Ondorioz, ez dira onartuko eskatzailearen datuak beste pertsona batzuen datuekin nahasten diren datuak.

2. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, berariaz, deialdi honetan eskatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten kirolariak, eta, bereziki, honako tipologia hauetako batean sartzen direnak:

– Artikulu honetako aurreko apartatuan adierazitako lehiaketetako batean parte hartu izana justifikatzen ez dutenak.

– Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian eta haren osteko aldaketetan jasotzen diren egoeretan dauden pertsonak. Dekretu horrek onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.

– Kirolari profesionalaren kategorian dutenak.

4. artikulua. Laguntzen zenbatekoak, guztira

Laguntzen zenbateko osoak ezingo du inola ere gainditu helburu horretarako jarri den zenbatekoa, hau da, 20.000 euro. Kirolaraba Fundazioaren 2022ko aurrekontuaren kontura izango da zenbateko hori.

Aurrekontu horrek ez du esan nahi Kirolaraba Fundazioak osorik kontsumitu behar duenik.

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatu ondoren soberakinik geratzen bada, eskaerak balioesteko ardura duen kide anitzeko organoak proposatu ahal izango du soberakin hori erabiltzea Fundazioak berak 2022. urtean goi-mailako klubentzako laguntzen deialdira.

5. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak

1- Honako hauek joko dira diruz lagun daitezkeen gastutzat:

a) Entrenatzaileei eta monitoreei, laguntzaileei, mekanikariei eta antzeko ezaugarriak dituzten beste langile batzuei emandako ordainsariengatiko gastuak, 10.000 euroko mugaraino.

Zerbitzua kanpora ateraz gero, fakturak kirol entrenamenduetan espezializatutako enpreenak eta/edo profesionalenak izango dira, eta, ondorioz, kanpoan geratuko dira antzeko ezaugarriak dituzten federazio, klub, kirol elkarte eta irabazteko xederik gabeko beste erakunde batzuetatik datozenak.

b) Medikuntza, fisioterapia eta masaje zerbitzuen, albaitaritza zerbitzuen, ortopedia eta antzeko beste zerbitzu batzuen ordainsariengatiko gastuak, 2.000 euroko mugaraino.

Fakturak jarduera horretan espezializatutako enpresenak eta/edo profesionalenak izango dira, eta, ondorioz, kanpoan geratuko dira antzeko ezaugarriak dituzten federazio, klub, kirol elkarte eta irabazteko xederik gabeko beste erakunde batzuetatik datozenak.

c) Lizentzia, kanon gastuak eta federazio tasak (ez abalik ez zehapenik), 500 euroko mugaraino.

d) Entrenamenduko kirol ekipamendua erosteagatik eragindako gastuak, 2.000 euroko mugaraino.

e) Kirol material suntsikorra (baloiak, bolak, botika kutxarako materiala eta entrenamendua garatzeko behar-beharrezkoa den material guztia) erosteagatik gastuak, 2.000 euroko mugaraino.

Salbuespen gisa, onartuko dira bertoko kirolarekin lotutako materialak, norberak erabiltze-koak badira edo hertsiki suntsikorrek ez badira ere.

f) Entrenamenduetarako instalazioak alokatzeagatik gastuak, 1.000 euroko mugaraino.

Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inoiz ere ez dira sartuko lagundu daitezkeen gastuetan.

2. Diruz lagundu daitezkeen aldia: 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitarteko epeari dagozkion gastuak lagunduko dira diruz.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

Eskatzaile bakoitzari eman beharreko laguntzaren gehieneko zenbatekoa 5.000 eurokoa izango da.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, kasuan kasuko deialdietan ezarritakoaren arabera balioetsi ondoren, 150 euroraino iristen ez diren eskaerak.

7. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan jasotako laguntzak bateragarriak izango dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publikoek zein erakunde pribatuak (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek), bai eta Arabako Foru Aldundiko bertako beste sail batzuek ere, ematen dituzten dirulaguntzekin eta laguntzekin.

Onuradunak jakinarazi egingo dio organo esleitzaleari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duenez edo eskuratzeko eskaerarik egin duenez, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik.

8. artikulua. Organo eskudunak

1. Prozedura hasteko organo eskuduna Kirolaraba Fundazioaren Patronatua izango da, laguntzen deialdia onartzeko egintzaren bidez.

2. Prozeduraren instrukzioa egiteko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua izango da. Zerbitzu horri dagokio onuradunek eta bidalitako dokumentazioak deialdi honetan ezarritako betekizun tekniko eta administratiboak betetzen dituztela egiaztatzea.

3. Eskabideak balorazio batzorde batek balioetsiko ditu. Batzorde horren osaera deialdi honen 12. artikuluan arautzen da.

4. Laguntzak emateko prozedura Kirolaraba Fundazioaren Patronatuak ebatziko du, eskumen hori presidentearen esku utziko du.

5. Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoak ebazteko eskumena Kirolaraba Fundazioaren Patronatuarena izango da, eta Lehendakariari eskuordetuko dio.

9. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Pertsona bakoitzeko eskabide bakarra aurkeztu ahalko da. Kirolaria adingabea bada, aitak, amak edo legezko tutoretza duen pertsonak egin beharko du eskaera.

2. Eskabideak Fundazioko Patronatuari bidaliko zaizkio, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan ezarritakoari jarraiki aurkeztu beharko dira, modu hauetako baten bidez:

a) Bide elektronikoz, Arabako Foru Aldundiaren ([esteka](https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu)) egoitza elektronikoa horretarako eskuragarri dagoen inprimakia beteta. Horretarako, aldeztuak Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: (<https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>).

b) Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, behea) bertaratuta, edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako beste modu batean. Azken kasu horretan, eskabideak deialdi honen I. eranskineko ereduari egokitu beharko zaizkio.

3. Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Artikulu honetako 2.a) apartatuan ezarritako modalitatean aurkeztutako eskabideetan: formulario elektronikoa beteta.

b) Artikulu honen 2.b) apartatuan ezarritako modalitatean aurkeztutako eskabideetan: eskabide-orkia, behar bezala beteta (I. eranskina).

c) Federazio-lizentzia.

d) Dagokion Arabako federazioaren ziurtagiria, eskatzailearen administrazio-datuak, federazio-lizentziaren zenbakia, 3. artikuluan adierazitako lehiaketetan parte hartu izana eta, hala badagokio, lortutako kirol-arrakasta jasotzen dituen. Dokumentazio hori federazio horren arduradunak bete eta sinatuko du (II. eranskina).

e) Eskatzaileak, 2021ean zehar Fundaziotik laguntza ekonomikorik jaso badu, Kirolaraba Fundazioaren publizitate presentzia egon dela egiaztatu beharko du (kirol ekipamendua, kartelak, web orria edo beste edozein hedabide).

f) 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera diruz lagun daitezkeen gasturen bat aurkeztuz gero, diruz lagun daitezkeen aurkeztutako gastuen fakturak, eta 500 eurotik gorako gastuak ordaindu izanaren egiaztagiria.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko, besteak beste, honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagirik:

– Jaulkitzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

– Hartzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

– Gastuaren xedea.

– Data.

– Faktura zk.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; han agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo finantza erakundearen zigilua daukala.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; han agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.

- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituen.
 - Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
 - Jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.
4. Eskabide-inprimakian (l. eranskina) edo deialdi-eskabidearen berariazko formulario elektronikoan adierazitako ofiziozko egiaztapenen bati aurka eginez gero, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Kirolaria adingabea bada, NANaren fotokopia. NANik ez badu, erregistro zibileko ziurtagiria, familia-liburua edo nortasuna egiaztatzen duen beste agiriren bat.
- Arabako lurralde historikoko udalerriren batean edo Trebiñuko enklabean gutxienez 2019ko urtarrilaren 1etik erroldatuta dagoela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria.
- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela egiaztatzen duen agiria.

5. Organo izapidegileak egokitzat jotzen dituen dokumentu, argibide, frogagiri eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei, dirulaguntza dagokion xederako ez besterako erabili izanaren arrazoizko ebidentzia lortzeko.

6. Dokumentazio hori Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan aurkezten bada (<https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>), eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat sinatuko du, eta, bertan, adieraziko du espedientean sartzan diren fitxategiak jatorrizkoen irudi fidela direla, fitxategi horiek eskatzailearen esku daudela eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituela hala eskatzen zaionean.

Era berean, aipatutako organo instrukzio egileak, administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako plataformen bidez, egiaztatuko du eskatzaileak honako betekizun hauek betetzen dituela, salbu eta pertsona horrek horren aurka egiten badu:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Gutxienez 2019ko urtarrilaren 1az geroztik Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean edo Trebiñuko enklabean jarraian erroldatuta egotea.
- Eskatzailearen nortasunaren datuak.
- Goi-mailako kirolariaren nortasun-datuak, eskatzailea ez bada.

Eskatzaileak aurreko egiaztapenen aurka egiten badu, betekizun horien egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako hamabigarrenaren bidez aldatua).

Hala ere, eskabidean jarri beharreko daturen bat edo nahitaezko agiriren bat falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela. Administrazioak eskaera horren esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.

10. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2022ko irailaren 1ean hasi eta irailaren 22an bukatuko da, biak barne.

11. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

1. Laguntzak banatzeko, puntuazioaren arabera banaketa sistema bat aplikatuko da, honako arau hauek hurrenez hurren aplikatzean datzana:

- Pertsona bakoitzari puntu kopuru bat emango zaio, hain zuzen artikuluko honetako 2. eta 3. apartatuetan lortutako puntuen batura, eta 4. eta 5. apartatuetan ezarritako koefizienteak aplikatuko zaizkie. Horrela, eskatzaile bakoitzari esleitutako puntu guztiak lortuko dira.

- Deialdi honen 6. artikuluan ezarritako laguntzaren zenbateko osoa eskatzaile guztiek lortutako puntuen baturarekin zatituko da. Banaketa horren emaitza puntu bakoitzaren balio ekonomikoa izango da.

- Eskatzaile bakoitzari emandako puntu kopurua bider puntuaren balio ekonomikoa egingo da; horrela, onuradun bakoitzari dagokion diru kopurua lortuko da.

2. Diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuak gehienez 25 puntuko balorazioa izango du, puntuazio hauen arabera banatuta:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK	PUNTUAK
0,01 euro eta 1.000 euro arte	1
1.000,01 euro eta 5.000,00 euro artean	5
5.000,01 euro eta 10.000,00 euro artean	10
10.000,01 euro eta 15.000,00 euro artean	15
15.000,01 euro eta 20.000,00 euro artean	20
20.000,01 euro baino gehiago	25

3. Kirol arrakastak gehienez 75 puntuko balorazioa izango du, puntuazio hauen arabera banatuta. Puntuaziorik handiena ematen duen kirol-arrakasta bakarrik hartuko da kontuan:

LORTUTAKO POSTUA	ESPAINIAKO TXAPELKETA, KATEGORIA EZ ABSOLUTUA	ESPAINIAKO TXAPELKETA	EUROPAKO TXAPELKETA, KATEGORIA EZ ABSOLUTUA	EUROPAKO TXAPELKETA	MUNDUKO TXAPELKETA, KATEGORIA EZ ABSOLUTUA	MUNDUKO TXAPELKETA	OLINPIAR JOKOAK
Lehenengoa	15	25	30	50	40	70	75
Bigarrena	10	20	20	40	30	60	65
Hirugarrena	5	15	10	30	25	50	55
Laugarrenetik zortzigarreneira	0	0	5	20	20	40	45
Parte hartzea	0	0	2	10	15	30	35

4. Aurreko 2. eta 3. apartatuetako puntuazioen batura 1,5 faktore zuzentzailearekin biderkatuko da, modalitate/diziplina olinpikoak badira.

5. Aurreko apartatuan lortutako puntuazioa 1,15eko faktore zuzentzailearekin biderkatuko da, kirolaria emakumea bada.

6. Emandako zenbatekoa edozein dela ere, kontuan hartuko da 3. atalean 0ko puntuazioa lortuz gero, muga izango dela diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoa.

7. Muga hori aplikatu ondoren, eta kontuan hartuta dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa (5.000 euro), eskatzaile guztiek jaso beharreko zenbatekoaren batura deialdiaren zenbateko osoa baino txikiagoa bada, bigarren banaketa bat egingo da soberako zenbatekoarekin aurreko apartatuan ezarritako muga ekonomikoetara edo gehieneko zenbatekora iritsi ez diren erakundeen artean.

Bigarren banaketa horretarako, soberako kopurua zatituko da aurreko apartatuan ezarritako mugara edo gehieneko zenbatekora ere iritsi ez diren pertsonen puntu kopuruarekin; horrela, puntuari dagokion bigarren balio bat lortuko da. Puntuaren bigarren balio hori biderkatu egingo da eskatzaile bakoitzari emandako puntu kopuruarekin. Horrela, bigarren banaketa horretan esleitu beharreko diru kopurua lortuko da, eta lehen banaketari gehituko zaio.

Soberakin ekonomikorik badago, aurreko paragrafoan deskribatutako eragiketa errepikatuko da, harik eta deialdiaren gehieneko kopurura iritsi arte, edo eskatzaile guztiek diruz lagundu daitezkeen gastuen mugara iritsi arte, kirol-arrakasta ez duten kirolarien kasuan; eta 5.000 euroko mugara iritsi arte, kirol-arrakasta duten kirolarien kasuan.

12. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Balorazio Batzorde batek aztertuko ditu eskabideak. Batzorde horrek kontuan hartuko du otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, bere 3.7 artikuluan ezarritakoa. Hortaz, honako kide hauek izango ditu:

– Batzordeburua: Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Batzordekidea: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuko teknikari bat.

– Idazkaria: Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko talde teknikoko pertsona bat.

2. Balorazio batzordeak akta egingo du, aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera aztertu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun zerrenda zehaztuko da, hala badagokio.

3. Deialdi honen 8. artikuluan adierazitako Arabako Foru Aldundiko organo eskudunak deialdia ebatziko du, gehienez sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan, esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek ulertu beharko dute eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zer eskatzaileri eman zaien, eta espresuki adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikulua xedatutakoari jarraiki.

6. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke horren aurka erabakia eman duen organoaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatutakoaren arabera, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

13. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

Emandako zenbatekoak ordainketa bakarrean ordainduko dira, Kirolaraba Fundazioaren 2022ko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren kargura, dirulaguntzaren ebazpena eman.

Ezingo da ordainketa egin, harik eta onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan arte.

14. artikulua. Publizitatea

1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Horrez gainera, fundazioaren web orrian ere jarriko da: www.kirolaraba.eus.

2. Onuraduna behartuta dago berariak eta modu argian adieraztera diruz lagundutako jarduerari buruzko argibide, publizitate eta propaganda orotan Kirolaraba fundazioak babesa eman duela; edonola ere, laguntza ekonomikoa ematen zuen ebazpenean zehazten ziren baldintzetan egingo da hori.

15. artikulua. Interpretazioa

Deialdi hau interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza Kirolaraba fundazioak ebatziko du.

16. artikulua. Delegazioa

Deialdi honen 8. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, laguntzak emateko prozedura-aren ebazpena Patronatuko presidentearen esku uzten da, baita ebazpen horien aurka jarritako berraztertze errekurtsuak ebaztea ere.

17. artikulua. Azken klausula

Foru agindu honetan ezarritako prozedura honako hauei lotzen zaie: Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuari, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak dirulaguntzen arloan arautzen dituen xedapenei eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoari, bai eta araudi aplikagarriak xedatzen duen guztiari ere.


Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 7a

Kirolaraba Fundazioaren Patronatuko presidentea

ANA M. DEL VAL SANCHO

Patroia

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	<p>Goi Mailako Kirolarientzako laguntzak. Eskabidea (I. eranskina)</p>	<p>2022</p>
	<p>Ayudas para Deportistas de Alto Nivel. Solicitud (Anexo I)</p>	

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input checked="" type="checkbox"/> IFZ (NANa, AIza, ...) NIF (DNI, NIE...)	Identifikazio zk. ■ N° identificativo <input type="text"/>	Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakume Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre
Izena ■ Nombre <input type="text"/>	Lehen abizena ■ Primer apellido <input type="text"/>	Bigarren abizena ■ Segundo apellido <input type="text"/>
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) <input type="text"/>	Zk. ■ Núm. <input type="text"/>	Letra <input type="text"/>
Eskra. ■ Escal. <input type="text"/>	Solairua ■ Piso <input type="text"/>	Aldea ■ Mano <input type="text"/>
Herialdea ■ País <input type="text"/>	Probintzia ■ Provincia <input type="text"/>	Udalerría ■ Municipio <input type="text"/>
Herria ■ Localidad <input type="text"/>	PK ■ C. P. <input type="text"/>	
Telefonoa ■ Teléfono <input type="text"/>	Mugikorra ■ Móvil <input type="text"/>	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico <input type="text"/>

KIROLARIA (ADIN TXIKIKOA DENEAN) ■ DEPORTISTA (EN CASO DE SER MENOR DE EDAD)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input checked="" type="checkbox"/> IFZ (NANa, AIza, ...) NIF (DNI, NIE...)	Identifikazio zk. ■ N° identificativo <input type="text"/>	Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakume Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre
Izena ■ Nombre <input type="text"/>	Lehen abizena ■ Primer apellido <input type="text"/>	Bigarren abizena ■ Segundo apellido <input type="text"/>
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) <input type="text"/>	Zk. ■ Núm. <input type="text"/>	Letra <input type="text"/>
Eskra. ■ Escal. <input type="text"/>	Solairua ■ Piso <input type="text"/>	Aldea ■ Mano <input type="text"/>
Herialdea ■ País <input type="text"/>	Probintzia ■ Provincia <input type="text"/>	Udalerría ■ Municipio <input type="text"/>
Herria ■ Localidad <input type="text"/>	PK ■ C. P. <input type="text"/>	
Telefonoa ■ Teléfono <input type="text"/>	Mugikorra ■ Móvil <input type="text"/>	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico <input type="text"/>

ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ■ DOCUMENTACIÓN A ADJUNTAR


Ondokoak aurkeztu behar dira: 1. <input type="checkbox"/> Lizentzia federatuaren fotokopia 2. <input type="checkbox"/> Federazioaren ziurtagiria (II Eranskina).	Acompañar de: 1. <input type="checkbox"/> Fotocopia licencia federada 2. <input type="checkbox"/> Certificado de la Federación (Anexo II).
---	---

Baimena ematen dut Kirolaraba Fundazioak (FKF) nire datu pertsonalen tratamendua egiteko dirulaguntza honi buruzko izapideak eta kontrola kudeatzeko helburuetarako.
 Expreso mi consentimiento para que la Fundación Kirolaraba Fundazioa (FKF) trate mis datos personales para las finalidades de gestionar la tramitación y control sobre esta ayuda económica.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante

Orria ■ Hoja 1/7

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	<p>Goi Mailako Kirolarientzako laguntzak. Eskabidea (I. eranskina)</p> <p>Ayudas para Deportistas de Alto Nivel. Solicitud (Anexo I)</p>	<p>2022</p>
--	---	--------------------

KIROL-HISTORIALA ■ HISTORIAL DEPORTIVO

Adierazi, bakar-bakarrik, urte bakoitzean lortutako posturik onena ■ Indicar, solamente, el mejor puesto alcanzado cada año

Data Fecha	Lehiaketaren izena Nombre de la competición	Tokia Lugar	Postua Puesto
2019			
2020			
2021			

2022 KIROL PROIEKTUA ■ PROYECTO DEPORTIVO 2022**ENTRENAMENDUEN PLANA ■ PLAN DE ENTRENAMIENTOS**

--

2022 LEHIAKETEN PLANA ■ PLAN DE COMPETICIONES 2022


Data Fecha	Lehiaketaren izena Nombre de la competición	Tokia Lugar

Entrenatzailea
Entrenador/a

Entrenatzailearen sinadura
Firma del/la entrenador/a

Kluba
Club

Klubaren zigilua
Sello del club


 <small>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</small>	Goi Mailako Kirolarientzako laguntzak. Eskabidea (I. eranskina)	2022
	Ayudas para Deportistas de Alto Nivel. Solicitud (Anexo I)	

EGINDAKO GASTUAK ■ GASTOS REALIZADOS (MEMORIA-LIKIDAZIOA ■ MEMORIA-LIQUIDACIÓN)
 (Ikus 5. artikuluko gastu konputagarrien definizioa ■ Ver definición de gastos subvencionables del artículo 5)

Kontzeptua ■ Concepto	Zenbatekoa ■ Importe
a) Langileen gastuak ■ Gastos de personal de entrenamiento	
b) Mediku gastuak ■ Gastos Médicos	
c) Federazio gastuak ■ Gastos Federativos	
d) Kirol ekipamenduak ■ Equipaciones deportivas	
e) Material suntsikorra ■ Material fungible	
f) Instalazioen alokairua ■ Alquiler Instalaciones	
GASTUAK, GUZTIRA ■ TOTAL GASTOS	

SARREREN AURREKONTUA ■ PRESUPUESTO DE INGRESOS

Kontzeptua ■ Concepto	Zenbatekoa ■ Importe
SARRERAK, GUZTIRA ■ TOTAL INGRESOS	
ESKATZEN DEN DIRULAGUNTZA ■ SUBVENCIÓN QUE SE SOLICITA	

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	<p>Goi Mailako Kirolarientzako laguntzak. Eskabidea (I. eranskina)</p>	<p>2022</p>
	<p>Ayudas para Deportistas de Alto Nivel. Solicitud (Anexo I)</p>	

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos

	NAN DNI	
--	------------	--

BANKUKO DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

BANKUA ■ BANCO		SWIFT
IBAN		

FINANTZA ENTITATEAK bete behar du ■ A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA*Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■ Conforme entidad financiera (firma y sello)*

Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona interesdunaren izenean eta NANarekin dagoela irekita ■
La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al DNI y nombre de la persona interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE"

DATUEN BABESERAKO OHARRA**BAIMENA**

Europako Parlamentuaren eta kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak "KIROLARABA FUNDAZIOA"ren titulartasuneko fixategi batean sartuko direla. Datu horien tratamendua zure eskaera izapidetzeko xede bakarraz egiten da.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezamitako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak aitortzen baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Arautegiak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegoan dagoen "KIROLARABA FUNDAZIOA" jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba-).

AVISO DE PROTECCIÓN DE DATOS**CONSENTIMIENTO:**

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en un fichero titularidad de "FUNDACION KIROLARABA FUNDAZIOA", cuyos tratamientos se realizan para la tramitación del expediente relacionado con esta convocatoria.


Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, y limitación que reconoce el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016, dirigiéndose a "FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA" en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante

Orria ■ Hoja 4/7

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	<p>Goi Mailako Kirolarientzako laguntzak. Eskabidea (I. eranskina)</p>	<p>2022</p>
	<p>Ayudas para Deportistas de Alto Nivel. Solicitud (Anexo I)</p>	

**KIROLARABA A2 GOI MAILAKO
KIROLARIENTZAKO DIRULAGUNTZAN
PARTE HARTUKO DUEN
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

**DECLARACIÓN RESPONSABLE PARA
PARTICIPANTE EN LA SUBVENCIÓN
KIROLARABA A2 PARA DEPORTISTAS DE
ALTO NIVEL**

Jaunak/andreak
(Eskatzailea)
NAN-zk.

D./Dña.
(Solicitante)
con DNI

ADIERAZTEN DU

DECLARA QUE

Aurkeztutako datuak egiazkoak dira eta horiek baieztatze behar diren egiaztagiri guztiak erraztuko ditu; gainera, eskabidea aztertzeko eskatzen zaion informazio osagarri guztia aurkezteko konpromisoa hartzen du.

Los datos presentados son ciertos y se comprometo a facilitar las comprobaciones necesarias para verificar los mismos y a aportar toda la información complementaria que se le solicite con el fin de analizar su solicitud.

Gutxienez, 2019ko urtarrilaren 1az geroztik Arabako Lurralde Historikoan etengabe erroladatuta egon naizela eta eskaera egiten dudan egunean bertan jarraitzen dudala.

Que estoy empadronado/a ininterrumpidamente en el Territorio Histórico de Álava, al menos, desde el 1 de enero de 2019, y que el día de presentación de esta solicitud continúo en esa situación.

Ez dago HIRUGAREN artikuluan ezarritako baztertzeko egoeretako batean ere.

No se encuentra en ninguna de las situaciones de exclusión establecidas en el artículo TERCERO.

Egunean dago Arabako Foru Ogasunarekiko betebeharreran eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoetan.

Tiene regularizada su situación con la Hacienda Foral de Álava y, en su caso, con la Seguridad Social

Ez da jasotzen ari xede eta helburu bererako administrazio publikoek edo erakunde pribatuek emandako laguntzarik edo diru-laguntzarik.

No está recibiendo ninguna ayuda o subvención con este mismo objeto y finalidad concedida por administraciones públicas o entidades privadas.


Ez du zehapen administratibo edo penalik diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion epai irmo baten bidez, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, berariaz aipatuta generoagatiko edo sexu-orientazioagatiko diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak (dagokion zehapenean ezarritako aldian).

No está sancionada penal o administrativamente mediante sentencia firme que le imposibilite obtener subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con mención expresa a las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de género u orientación sexual (durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción).

Ez du konkurtso-deklarazioa eskatu, ez da kaudimengabetzat jo edozein prozeduratan, ez dago konkurtsoan deklaraturik, ez dago esku-hartze judizialaren mende edo ez dago esku-hartze judizialaren mende Konkurtso Legearen arabera desgaitu bada, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitutza-aldia amaitu gabe.

No ha solicitado la declaración de concurso, no ha sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no se halla declarada en concurso, no está sujeta a intervención judicial o no ha sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal, sin que haya concluido el periodo de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.

Orria ■ Hoja 5/7

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	<p>Goi Mailako Kirolarientzako laguntzak. Eskabidea (I. eranskina)</p> <p>Ayudas para Deportistas de Alto Nivel. Solicitud (Anexo I)</p>	<p>2022</p>
--	---	--------------------

Ez du ekarri, errudun deklaraturia izateko kausagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmorik.

Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak, bateraezintasun-kasuren batean, gai horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

Egunean ditu diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak.

No ha dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.

No está incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de incompatibilidades en los términos establecidos en la normativa que regule estas materias.

Se halla al corriente del pago de obligaciones por reintegro de subvenciones


.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma

Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati gehitzen zaion edozein datu edo informazio funtsean zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunaren aurrean erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, adierazitakoa betetzen dela egiaztatze eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, edo jakinarazpena egiten bada, ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatu jarraitu ezin izango da gertaera horien berri jakiten den unetik. Sor litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

Orria ■ Hoja 6/7

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	<p>Goi Mailako Kirolarientzako laguntzak. Eskabidea (I. eranskina)</p> <p>2022</p> <p>Ayudas para Deportistas de Alto Nivel. Solicitud (Anexo I)</p>
--	--

OFIZIOZ EGIAZTATZEA ■ COMPROBACIÓN DE OFICIO:
(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Fundación Kirolaraba Fundazioak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskuduneari: ■ De acuerdo con la normativa aplicable, la Fundación Kirolaraba Fundazioa comprobará en la administración competente los siguientes datos:

- **Zerga- eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa** ■ Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
- **Eskatzailearen nortasun datuak** ■ Datos de identidad de la persona solicitante.
- **Goi mailako kirolariaren nortasun datuak** ■ Datos de identidad de la persona deportista de alto nivel.
- **Goi mailako kirolariaren errolda datuak** ■ Datos de padrón de la persona deportista de alto nivel.

Egiaztapen horren aurka egin dezake, baina, kasu horretan, aipatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu. ■ Puede oponerse a esta comprobación, pero en ese caso deberá aportar todos los documentos mencionados.


Aipatutako datuak ofizioz egiaztatzeari uko egin nahi diozu? ■ ¿Desea oponerse a la comprobación de oficio de los datos mencionados?

- Ofizioz zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egiaztatzearen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio del cumplimiento de las obligaciones fiscales y con la Seguridad Social.
- Ofizioz eskatzailearen nortasun datuak egiaztatzearen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio de los datos de identidad de la persona solicitante.
- Ofizioz goi mailako kirolariaren nortasun datuak egiaztatzearen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio de los datos de identidad de la persona deportista de alto nivel.
- Ofizioz goi mailako kirolariaren errolda datuak egiaztatzearen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio de los datos de padrón de la persona deportista de alto nivel.

.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma

Orria ■ Hoja 7/7

 <small>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</small>	Kirol arrakastaren ziurtagiria (II. eranskina)	2022
	Certificado de éxito deportivo (Anexo II)	

Behean sinatzen duen Arabako Federazioak ■ La Federación Territorial Alavesa abajo firmante

ZIURTATZEN DU ■ CERTIFICA

_____ kirolariak (NAN: _____ eta federazio-fitxa: _____), 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra, kirol arrakastari buruzko datu hauek lortu ditu maila nazionalako edo goragoko lehiaketetan:
 Que el/la deportista _____, con DNI _____ y ficha federativa nº _____, desde el 1 de septiembre de 2021 hasta el 31 de agosto de 2022, ha conseguido el siguiente éxito deportivo referido a competiciones de nivel nacional o superior:

Kirol modalitatea eta diziplina Modalidad y disciplina deportiva		
Kluba Club		
Kirol arrakasta lortu du deialdiaren arabera Ha conseguido éxito deportivo según la convocatoria	BAI ■ SI <input type="checkbox"/>	EZ ■ NO <input type="checkbox"/>

KIROL ARRAKASTA. LEHIAKETAREN MAILA ■ ÉXITO DEPORTIVO. NIVEL DE LA COMPETICIÓN

Lehiaketa ■ Competición	Lortutako postua Puesto alcanzado
Olinpiar Jokoak Juegos Olímpicos	
Munduko txapelketak Campeonatos del Mundo	
Europako txapelketak Campeonatos de Europa	
Espainiako txapelketak eta kopak Campeonatos y Copas de España	
Lehiaketaren izena Nombre de la competición	Tokia ■ Lugar
	Data ■ Fecha
Lehiaketa kategoría absolutukoa da La competición es de categoría absoluta	BAI ■ SI <input checked="" type="checkbox"/> EZ ■ NO <input type="checkbox"/>
Lehiaketa maila gorenekoa da La competición es de la máxima categoría	BAI ■ SI <input type="checkbox"/> EZ ■ NO <input type="checkbox"/>
Gimnastika erritmikoa. Lehenengo edo ohorezko mailan lortuta. Gimnasia Rítmica. Conseguido en primera categoría u honor.	BAI ■ SI <input type="checkbox"/> EZ ■ NO <input type="checkbox"/>
Gimnastikako beste diziplinak. Senior mailan lortuta. Resto de disciplinas de Gimnasia. Conseguido en categoría senior.	BAI ■ SI <input type="checkbox"/> EZ ■ NO <input type="checkbox"/>
Lehiaketak alde zuzenaz sailkatzeko beharra zuen / Estatuko selekzioaren ordezkaria / Basque Country_ko ordezkaria Competición que exigía clasificación previa / Representante de la selección estatal / Representante de Basque Country	BAI ■ SI <input type="checkbox"/> EZ ■ NO <input type="checkbox"/>

FEDERAZIOA ■ FEDERACIÓN	
IZENPEA ■ FIRMA	FEDERAZIOAREN ZIGILUA ■ SELLO DE LA FEDERACIÓN

Orria ■ Hoja 1/1